Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak
Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 33. AKTA

**Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2026-05-18

**Ordua:** 13:02 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua**: Juan Marrero Vizcaino

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Idoia Gracia Monge

Nekane Arzallus Iturriza

Olatz Yarza Garagorri

Martin Ibabe Eceiza

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza López de Samaniego (*13:20an bilkuratik joan da)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Tomas Pascua Martin

Victor Lasa Briz

**Beste zinegotzi batzuk**:

Arantza González García *(13:55ean bertaratu da eta 14:17an bilkuratik joan da)*

**Beste batzuk:**

Taxilarien kolektiboko hiru kide *(14:04an bertaratu dira bilerara, 15. gaia aztertzen hasi denean, eta 14:17an bileratik joan dira)*

**Idazkaria:** Ana Perez Galarraga, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

## ACTA N.º 33

**Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 18-05-2026

**Hora:** 13:02 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Juan Marrero Vizcaíno

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Idoia Gracia Monge

Nekane Arzallus Iturriza

Olatz Yarza Garagorri

Martín Ibabe Eceiza

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza López de Samaniego *(abandona la sesión a las 13:20 h)*

Itziar Iturri Arrazola

Iñigo García Villanueva

Tomás Pascua Martín

Víctor Lasa Briz

**Otros/as concejales y concejalas**:

Arantza González García *(se incorpora a la sesión a las 13:55 h y la abandona a las 14:17 h)*

**Otros/as:**

Tres personas pertenecientes al colectivo de taxistas *(se incorporan a la sesión a las 14:04 h, al inicio del tratamiento del asunto n.º 15, y la abandonan a las 14:17 h)*

**Secretaria:** Ana Pérez Galarraga, por delegación de la Secretaria General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2026ko apirilaren 20an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 32. akta, 2026ko apirilaren 20an egindako bilerari dagokiona.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta, ondorioz, jarraian, 16., 17., 19. eta 20. gaiak aztertu dira.

* * * *

**Interpelazioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, BEA 17. Lineari buruzkoa.**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau azaldu du:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Olatza Yarza Garagorri Mugikortasuneko, Garraio Jasangarriko eta Turismoko Zinegotzi Ordezkariari BEA 17 lineari buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko maiatzaren 2an sinatu zen Euskal Autonima Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Donostiako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, Donostian bus elektriko adimendunaren proiektua idazteko eta ondoren hori ezartzeko.

Hitzarmenak 25.700.000 euroko aurrekontua zuen; % 65 Eusko Jaurlaritzak ordaindua eta % 35 Donostiako Udalak.

Gauzatzeko epea 4 urtekoa izango zen, eta gehienez beste 4 urtez luzatuko zen.

Orain jakin dugu, Eusko Jaurlaritzak ez duela beste 4 urtez luzatu nahi hitzarmena, eta Udal Gobernuak 2026ko abenduak 31 arte luzatzeko eskatu dio.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 20 de abril de 2026**

Se aprueba por unanimidad el acta número 32, correspondiente a la sesión celebrada el día 20 de abril de 2026.

* * * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos. Así, a continuación, se tratan los asuntos n.º 16, n.º 17, n.º 19 y n.º 20.

* * * *

**Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con la línea BEI 17.**

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente interpelación:

“Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Transporte y Movilidad Sostenible, Olatz Yarza Garagorri, la siguiente INTERPELACIÓN, relativa la línea 17 BEI, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 2 de mayo de 2022 se firmó el Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de San Sebastián para la redacción del proyecto de bus eléctrico inteligente en San Sebastián y su posterior implantación.

El convenio tenía un presupuesto de 25.700.000 euros, el 65 % a abonar por el Gobierno Vasco y el 35 % restante por el Ayuntamiento de San Sebastián.

El plazo de ejecución sería de 4 años prorrogables hasta un máximo de 4 años más.

Recientemente hemos tenido conocimiento de que el Gobierno Vasco no quiere prorrogar el convenio por otros 4 años y que el Gobierno Municipal le ha solicitado una prórroga hasta el 31 de diciembre de

2026.

Baina ez da hori izan aldaketa bakarra, eta hitzarmen berrian adierazten da, hasieran aurreikusitako 25.700.000 euro haietatik 12.325.081,20 euro besterik ez direla egikarituko.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

– Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin duen hitzarmena beste 4 urtez luzatu?

– Zer dela eta eskatu du Udal Gobernuak hitzarmena 2026ko abenduaren 31 arte luzatzeko?

– Zergatik hasieran aurreikusitako 25.700.000 euro haietatik soilik 12.325.081,20 euro egikarituko dira? amaitzekoa eta ezartzekoa?

– Zer egoeratan dago BEA proiektua? Noiz da amaitzekoa eta ezartzekoa?

Donostian, 2026ko maiatzaren 7an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

No obstante, esta no ha sido la única modificación, ya que en el nuevo convenio se indica que de los 25.700.000 euros inicialmente previstos, solo se ejecutarán 12.325.081,20 euros.

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

– ¿Por qué motivo el no se ha prorrogado por otros 4 años el convenio entre el Gobierno Municipal y el Gobierno Vasco?

– ¿Por qué motivo ha solicitado el Gobierno Municipal la prórroga del convenio hasta el 31 de diciembre de 2026?

– ¿Por qué de los 25.700.000 euros inicialmente previstos solo se ejecutarán 12.325.081,20 euros?

– ¿En qué situación se encuentra el proyecto BEI? ¿Cuándo se prevé que finalice y se implemente?

San Sebastián, 7 de mayo de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Eskuzaitzetako autobus-zerbitzuari buruzkoa.</u>**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau azaldu du:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Olatz Yarza Garagorri Mugikortasuneko eta Garraio Jasangarriko Zinegotzi Ordezkariari Eskuzaitzetako autobus-zerbitzuari buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Eskuzaitzeta, Zubietan, Donostian dagoen industriagune handiena da.

113.000 metro karratu baino gehiago ditu eta egun enpresa eta zentro teknologiko ugari daude bertan, hala nola, Otis, Gipuzkoako Farmazi Banatzailea, Supresu, Mubil edo Naturklima.

**<u>Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el servicio de autobús a Eskuzaitzeta.</u>**

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Transporte y Movilidad Sostenible, Olatz Yarza Garagorri, la siguiente INTERPELACIÓN, relativa al servicio de autobús a Eskuzaitzeta, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

Eskuzaitzeta, en Zubieta, es el mayor polígono industrial de San Sebastián.

Tiene más de 113.000 metros cuadrados y cuenta actualmente con numerosas empresas y centros tecnológicos como Otis, Distribuidor de Farmacia de Gipuzkoa, Supresu, Mubil o Naturklima.

Baina horiez gain, egungo Donostiako Martuteneko espetxea, bertara eramango da.

Enpresa eta zentro teknologikok jada martxan daude eta egunero langile ugari dira bertara lanera doazenak. Eta badirudi, ekainaren bukaeran, Martuteneko presoak Zubietara eramango dituztela.

Horrek eguneroko jendearen joan-etorria ugarituko du, eta garraio publiko ezean, auto pribatua edo bestelako garraiobideak bilatu beharko dituzte bertako erabiltzaileak Eskuzaitzeatara joateko.

Azken aldian garraio publikoari irtenbidea emateko eztabaidan aritu dira Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala, inolako irtenbiderik bilatu gabe orain arte.

Bada, EH Bilduren ustetan, Eskuzaitzeta Donostiako Lurretan badago eta mugikortasun jasangarria sustatu nahi badu bertara, garraio zerbitzu publikoa bermatuko duen irtenbidea bilatu beharko du.

Horretarako, hainbat aukera egon badaude: esaterako, Donostiatik zuzenean Eskuzaitzetara doan autobusa edo Errekaldeko Euskotreneko geltokitik autobus lanzaderak jartzea Eskuzaitzetara. Garraio publikoa sustatze aldera, horiek aztertzea eta martxan jartzea dagokio Udal Gobernu honi.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta ez du Udal Gobernuak autobus-zerbitzurik jarri Eskuzaitzetara?

2. Jarri al da Udal Gobernua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan Eskuzaitzetako autobus-zerbitzuari buruz hitz egiteko eta irtenbide bat bilatzeko?

3. Zer asmo du Udal Gobernuak Eskuzaitzetaraino autobus-zerbitzua bermatzeko?

Donostian, 2026ko maiatzaren 7an

Garbiñe Alkiza Lopez de SamaniegoEH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Pero además, al actual centro penitenciario de Martutene se trasladará a este espacio.

Las empresas y centros tecnológicos ya están en funcionamiento y son muchas las personas trabajadoras que diariamente acuden a trabajar a dicha zona. Y, al parecer, los presos de Martutene serán trasladados a Zubieta a finales de junio.

Esto aumentará el flujo diario de personas, y si no hay transporte público, las personas usuarias que acudan a Eskuzaitzeta deberán emplear el vehículo privado o se verán obligadas a buscar otros medios de transporte.

Recientemente, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián han debatido sobre una solución de transporte público, sin que hayan encontrado ninguna solución.

Pues bien, en opinión de EH Bildu, si Eskuzaitzeta está en terrenos pertenecientes al Ayuntamiento de San Sebastián y este quiere promover una movilidad sostenible, deberá buscar una solución que garantice un servicio de transporte público.

Para ello existen varias opciones, como un autobús que vaya directamente de Donostia a Eskuzaitzeta o el establecimiento de un servicio de lanzadera desde la estación de Euskotren de Rekalde a Eskuzaitzeta. A fin de fomentar el transporte público, corresponde a este Gobierno Municipal su análisis y puesta en marcha.

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1. ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha puesto un servicio de autobús a Eskuzaitzeta?

2. ¿Se ha puesto el Gobierno Municipal en contacto con la Diputación Foral de Gipuzkoa para hablar sobre el servicio de autobús a Eskuzaitzeta y para buscar una solución?

3. ¿Qué intención tiene el Gobierno Municipal para garantizar el servicio de autobús a Eskuzaitzeta?

San Sebastián, 7 de mayo de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU”

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al

Diario de Sesiones.

**Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Txofreko aparkalekuari buruzkoa.**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau azaldu du:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Olatz Yarza Garagorri Mugikortasuneko eta Garraio Jasangarriko Zinegotzi Ordezkariari Txofreko aparkalekuari buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak 1977an esleitu zuen Txofre plazako ibilgailuentzako lurrazpiko aparkalekua eraiki eta ustiatzeko emakida. Udala 462 garaje plaza dituen aparkalekuaren jabea da.

Aparkaleku horrek eremuko etxebizitza bloke batzuetako aparkaleku pribatuak ere baditu, 1006 plaza.

2016ko otsailaren 16an amaitu zen aparkalekua ustiatzeko kontratuaren indarraldia, eta Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki bat hartu zuen, oraindik indarrean dagoen zerbitzua ematen jarraitzeko.

Hortaz, orain dagoena irregulartasun-egoera bat da.

Irregulartasun-egoera dela ere aipatu izan du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak azken urteko txostenetan.

Donostiako Udaleko ondare eta ekonomia kudeaketarako sailek ere aholkatu zuten, dagoeneko 2020an, «beharrezkoa dela kontratu berri bat lizitatzea lehenbailehen». Lau urte igaro dira, eta berdin segitzen dugu.

Honi buruz maiz galdetuta ere, egoerak berdin jarraitzen duela dirudi.

Jabeen elkargoarekin lan bat egin da azken urteetan. Ugariak izan dira ere jabeen elkargoarekin egon diren arazoak. Baina errealitatea da, Txofreko aparkalekua zaharkitua geratu dela eta eraberritze-lanak behar dituela.

2022ko irailaren 26ean kontratu txiki bat egin zen Txofre plazan dagoen aparkalekuko gainerako jabekideekin negoziatzeko laguntza teknikoa

**Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre el parking del Txofre.**

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente interpelación:

“Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Transporte y Movilidad Sostenible, Olatz Yarza Garagorri, la siguiente INTERPELACIÓN, relativa al parking del Txofre, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento adjudicó en 1977 la concesión para la construcción y explotación de un aparcamiento subterráneo para vehículos en la plaza del Txofre. El Ayuntamiento es propietario del parking con 462 plazas de aparcamiento.

Este aparcamiento cuenta también con aparcamientos privados de varios bloques de viviendas de la zona, con 1.006 plazas.

Con fecha 16 de febrero de 2016 finalizó la vigencia del contrato de explotación del aparcamiento y la Junta de Gobierno Local adoptó el acuerdo para mantener la prestación del servicio actualmente en vigor.

Por tanto, lo que existe ahora es una situación de irregularidad.

La situación de irregularidad ha sido también mencionada por el TVCP en su informes de los últimos años.

Las direcciones de Patrimonio y de Gestión Económica Ayuntamiento de San Sebastián asesoraron ya en 2020 sobre la «necesidad de licitar un nuevo contrato lo antes posible». Han pasado cuatro años y seguimos igual.

A pesar de las preguntas frecuentes al respecto, la situación parece no variar.

En los últimos años, se ha trabajado con la comunidad de propietarios, y también han sido numerosos los problemas con ella. Pero la realidad es que el aparcamiento de Txofre ha quedado obsoleto y necesita obras de reforma.

Con fecha 26 de septiembre de 2022 se celebra un contrato menor de asistencia técnica para la negociación con el resto de copropietarios del

emateko.

Ordutik hala ere, ez dugu Txofreko aparkaleku honen berririk.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

1. Zer dela eta ez da Udal Gobernua Txofreko aparkalekuko eraberritze-lanekin hasi? Noiz da hastekoa?

2. Zer dela eta ez da Udal Gobernua Txofreko bizilagunen elkargoarekin adostasun batera iritsi? Zer egoeratan daude elkarrizketak edo akordioak momentu honetan?

3. Zer asmo du Udal Gobernuak etorkizun batean Txofreko aparkalekuarekin?

Donostian, 2026ko maiatzaren 7an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

aparcamiento de la plaza Txofre.

Sin embargo, desde entonces no tenemos noticias respecto al parking del Txofre.

Es por ello, por la que concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

1. ¿Por qué motivo no ha iniciado el Gobierno Municipal las obras de reforma del parking del Txofre? ¿Cuándo se iniciarán?

2. ¿Por qué no se ha llegado a un acuerdo del Gobierno Municipal con la asociación de vecinos y vecinas del Txofre? ¿En qué situación se encuentran las conversaciones o acuerdos en este momento?

3. ¿Qué intenciones tiene el Gobierno Municipal con el parking de Txofre de cara al futuro?

San Sebastián, 7 de mayo de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU"

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>Galdera, EH Bildu taldeak aurkeztua, Lau Haizeta parkeari buruzkoa.</u>**

**(INTERPELAZIO BEZALA BIRKALIFIKATUA)**

Garbiñe Alkiza andreak ekimen hau *(interpelazio bezala birkalifikatutako galdera)* azaldu du:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, Lau Haizeta parkeari buruzko galdera egiten dio Jon Insausti Maizterrena Alkate jaunari, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Pasa den otsailean Lau Haizeta parkeari buruzko interpelazioa ekarri genuen batzordeetara.

Parkearen egoera txarraren berri eman genion zinegotzi arduradunari. Parke honetako egurrezko pasabide asko, egoera txarrean daude: barandak

**<u>Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación con el parque Lau Haizeta.</u>**

**(RECALIFICADA COMO INTERPELACIÓN)**

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente iniciativa *(pregunta recalificada como interpelación):*

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente pregunta al alcalde, Jon Insausti Maisterrena, relativa al parque de Lauaizeta, para que dé las oprtunas explicaciones orales en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de febrero, trasladamos a las comisiones la interpelación sobre el parque Lauaizeta.

Se informó al concejal responsable del mal estado del parque: algunos pasos elevados de madera están en muy mal estado: las barandillas están

puskatuak, zuloak lurrean, lurra bera goroldioz betea eta oso irristakor...

Hori baieztatzen zuten argazkiak ere ekarri genituen.

Bada, interpelazioari erantzunez, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen parkea berehalakoan konponduko zutela. Ordutik ia 3 hilabete pasa direnean, parkea egoera berdinean edo okerrago dagoela baieztatu ahal izan dugu.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak egindako,

GALDERA:

- Zergatik ez ditu Udal Gobernuak esan bezala Lau Haizetako parkean apurtuta dauden barandak eta egurrezko pasabideak konpondu ?
- Noiz du Udal Gobernuak asmoa Lau Haizeta parkean apurtua dagoena konpontzeko eta txukun jartzeko?

Donostian, 2026ko maiatzaren 7an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Iñigo Garcia jaunak eta Garbiñe Alkiza andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(13:20an Garbiñe Alkiza andreak bilkuratik atera da)*

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**<u>2.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, hiriko harresi zaharren hondar bakarra kontserbatzeari eta balioesteari buruzkoa.</u>**

Victor Lasa jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Víctor Lasa Elkarrekin Donostia Udal Talde Mistoko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako

rotas, hay agujeros en el suelo, el firme está cubierto de musgo, lo que resulta muy resbaladizo…

También aportamos fotografías que confirmaban esta situación.

Pues bien, respondiendo a la interpelación, el concejal delegado contestó que procedería a la inmediata reparación del parque. Transcurridos casi 3, hemos podido afirmar que el parque se encuentra en la misma situación, si no peor.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

PREGUNTA:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha procedido a reparar, tal como había dicho, las barandillas rotas y los pasos de madera, en el parque de Lauaizeta?
- ¿Cuándo tiene intención el Gobierno Municipal de llevar a cabo las reparaciones necesarias y adecentar el parque de Lauaizeta?

San Sebastián, 7 de mayo de 2026

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH BILDU"

Intervienen en este punto el Sr. García Villanueva y la Sra. Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 13:20 h la Sra. Alkiza López de Samaniego abandona la sesión )*

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**<u>2.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la conservación y puesta en valor del único resto existente de las antiguas murallas de la ciudad.</u>**

El Sr. Lasa Briz da por leída la siguiente interpelación:

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del Grupo Municipal Mixto Elkarrekin Donostia, al amparo de lo establecido en el artículo 134 del Reglamento

INTERPELAZIO hau aurkezten dio Hirigintzako zinegotzi Nekane Arzallus andereari, Donostiako harresi zaharraren hondar bakarra kontserbatu eta balioesteari buruzkoa

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako harresi zaharra gure hiriaren historiaren funtsezko zati bat da. Haren eraikuntzak eta ondorengo eraispenak eragin handia izan zuten Donostiako hiri-, gizarte- eta ekonomia-garapenean. Hala ere, gaur egun, mendeetan zehar hiriaren nortasuna definitu zuen ondare historiko horren zati bakar bat baino ez da kontserbatzen.

Elementu horrek historia-, kultura- eta hezkuntza-balio nabarmena izan arren, espazio horren egungo egoerak utzikeria eta erakunde-arretarik eza islatzen ditu. Kontserbazio-, mantentze-, seinaleztapen- eta dibulgazio-estrategia argirik ez izatea ez dator bat Udalak etengabe proiektatzen duen kultura- eta ondare-hiriaren irudiarekin.

Fisikoki kontserbatzeaz gain, espazio hori kultura-ibilbideetan, hezkuntza-jardueretan, ekimen turistiko jasangarrietan edo dibulgazio historikoko proiektuetan txerta liteke, kultura-erakundeekin, historialariekin eta hiriko ikastetxeekin lankidetzan.

Horiek horrela, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da sustatu Donostiako harresi zaharraren hondar bakarra kontserbatzeko eta balioesteko plan serio bat?

2. Azken urteotan, zer kontserbazio- eta mantentze-jarduera egin dira Donostiako harresi zaharretik egun kontserbatzen den tarte bakarrean?

3. Ba al dago gaur egun elementu hori birgaitzeko eta horri balioa emateko udal-proiekturik edo -planik?

4. Orain arte zergatik ez da bultzatu ondare-elementu horren zabalkunde eta aprobetxamendu kulturalerako estrategia integralik?

5. Udal-gobernuak aurreikusita al dauka legegintzaldi honetan jardutea, espazio hori duintzeko eta Donostiako hiri-memoria historikoaren elementu ikusgarri eta irisgarri

Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, dirigida a la Concejala de Urbanismo, Dña. Nekane Arzallus, relativa a la conservación y puesta en valor del único resto existente de las antiguas murallas de Donostia

JUSTIFICACIÓN

Las antiguas murallas de Donostia forman parte esencial de la historia de nuestra ciudad. Su construcción y posterior derribo marcaron profundamente el desarrollo urbano, social y económico de San Sebastián. Sin embargo, hoy en día apenas se conserva un único tramo de aquel patrimonio histórico que definió durante siglos la identidad de la ciudad.

A pesar de su evidente valor histórico, cultural y educativo, el estado actual de este espacio transmite una imagen de abandono y falta de atención institucional. La ausencia de una estrategia clara de conservación, mantenimiento, señalización y divulgación contrasta con la imagen de ciudad cultural y patrimonial que el Ayuntamiento proyecta constantemente.

Además de su conservación física, este espacio podría integrarse en rutas culturales, actividades educativas, iniciativas turísticas sostenibles o proyectos de divulgación histórica en colaboración con entidades culturales, historiadores y centros educativos de la ciudad.

Por lo tanto, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué no se ha impulsado un plan serio de conservación y puesta en valor del único resto existente de las antiguas murallas de Donostia?

2. ¿Qué actuaciones de conservación y mantenimiento se han realizado en los últimos años sobre el único tramo conservado de las antiguas murallas de Donostia?

3. ¿Existe actualmente algún proyecto o plan municipal para su rehabilitación y puesta en valor?

4. ¿Por qué no se ha impulsado hasta la fecha una estrategia integral de divulgación y aprovechamiento cultural de este elemento patrimonial?

5. ¿Tiene previsto el Gobierno municipal actuar durante esta legislatura para dignificar este espacio y convertirlo en un elemento visible y accesible de la memoria

bihurtzeko?

Donostia, 2026ko maiatzaren 7a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”

Nekane Arzallus andreak eta Victor Lasa jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Añorga Txikiren gainean.**

Pascua Martin jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Añorga Txikiri buruzko INTERPELAZIO aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Añorga Txikiko bizilagunek salatu dutenez, auzoko urbanizazio berriaz arduratzen den eraikuntza-enpresak 40 aparkaleku-plaza inguru kendu ditu auzotarrei abisatu gabe, eta Udalak bizilagunekin hartu zituen konpromisoak urratu ditu.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Zergatik erabaki du gobernu-taldeak 40 aparkaleku-plaza inguru kentzea aparkatzeko arazo larriak dauden auzo batean?

2. Zenbat auto dituzte Añorga Txikiko bizilagunek Udalean erregistratuta? Zenbat aparkaleku-plaza daude Añorga Txikin?

3. Gobernu Taldeak ba al du asmorik atzera egiteko eta hasierako egoerara itzultzeko; hau da, jatorrizko aparkaleku-plazak errespetatzeko?

Donostia, 2026ko maiatzaren 8a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

histórica urbana de Donostia?

Donostia, a 07 de Mayo de 2026

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”

Intervienen en este punto la Sra. Arzallus Iturriza y el Sr. Lasa Briz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre Añorga Txiki.**

El Sr. Pascua Martín da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre Añorga Txiki.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos de Añorga Txiki denuncian que la empresa constructora encargada de la nueva urbanización del barrio ha eliminado aproximadamente 40 plazas de aparcamiento sin avisar al barrio, contraviniendo los compromisos que el ayuntamiento contrajo con los vecinos.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno ha decidido eliminar alrededor de 40 plazas de parking en un barrio con graves problemas de aparcamiento?

2. ¿Cuántos coches tienen los vecinos de Añorga Txiki registrados en el Ayuntamiento? ¿Cuántas plazas de aparcamiento hay en Añorga Txiki?

3. ¿Tiene intención el Equipo de Gobierno de dar marcha atrás y volver a la situación inicial respetando las plazas de parking originales?

En San Sebastián, a 8 de Mayo de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Idoia Gracia andreak eta Tomas Pascua jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Uliako karabanei buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Ulian dauden karabanei buruzko INTERPELAZIO aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu-talde honek autokarabanak kudeatzeko duen moduak argi eta garbi islatzen du udal-gobernua ez dela gai arazo hori modu eraginkor batean kudeatzeko eta donostiarren arazoei erantzun bat emateko. Urteak daramatzagu legerian aldaketak egiteko eskatzen, gure hirian autokarabana askok gizalegearen kontrako jarrerak izaten baitituzte, eta egoera hori mugatu behar baita. Ez dugu lortu ordenantza aldatzea, ez dugu lortu hirian autokarabanak modu irregularrean aparkatzeari mugarik jartzea, eta, zoritxarrez, uda honetan berriro ikusiko ditugu ohiko eszenak, Gobernu Talde honek horietara ohitu baikaitu.

Pasealeku Berria, Ondarreta, Unibertsitateak eta Mirakontxa baino haratago, autokarabanekin arazoak dituzten beste leku batzuk ere badaude hirian. Azken urteotan, Uliako aparkalekua autokarabanen espazio gogokoenetako bat bihurtu da: bertan, espazio publikoa okupatzen dute —askotan donostiarrek ezin izaten dute bertan aparkatu– eta zikinkeria eta eragozpenak sortzen dituzte.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duenak honako hau aurkezten du:

INTERPELAZIOA

1. Ulia mendiko aparkalekuari dagokionez, zergatik ez da autokarabanek bertan aparkatzea kontrolatzen?

2. Zenbat zehapen jarri dizkie Udalak Ulia mendiko karabanistei, gizalegearen kontrako portaeragatik?

Donostia, 2026ko maiatzaren 8a

Borja Corominas Fisas

Intervienen la Sra. Gracia Monge y el Sr. Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre caravanas en Ulía.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre caravanas Ulía.

JUSTIFICACIÓN

La relación de este Equipo de Gobierno con las autocaravanas es un claro ejemplo de la incapacidad de gestionar de manera eficiente y dar respuestas a los problemas de los donostiarras. Llevamos años pidiendo, exigiendo, cambios en la legislación que pongan coto a la presencia incívica de muchas autocaravanas en nuestra ciudad. No conseguimos que se modificara la ordenanza, no hemos conseguido poner límites al estacionamiento irregular de autocaravanas en la ciudad y este verano vamos a volver a ver las escenas a las que este Equipo de Gobierno, desgraciadamente, nos ha acostumbrado.

Más allá del Paseo Nuevo, Ondarreta, Universidades y Miraconcha, hay otros lugares de la ciudad que experimentan problemas con las autocaravanas. El parking de Ulía se ha convertido, desde hace ya algunos años, en lugar predilecto de autocaravanas que copan el espacio público impidiendo en ocasiones a los donostiarras aparcar, generan suciedad y provocan molestias

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se controla el aparcamiento y estaciónamiento de autocaravanas en el parking del monte Ulia?

2. ¿Cuántas sanciones por comportamiento incívico se han expedido por parte del Ayuntamiento a caravanistas en el monte Ulia?

En San Sebastián, a 8 de Mayo de 2026

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Olatz Yarza andreak eta Martin Ibabe zein Tomas Lasa jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen la Sra. Yarza Garagorri y los Sres. Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Alde Zaharreko zuntz optikozko sarearen gainean.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Parte Zaharreko zuntz optikoaren sareari buruzko INTERPELAZIO aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Zuntz optikoaren sarea 2023ko amaieran instalatu zen Parte Zaharrean, eta jarduketa hori egiteko sei hilabete behar izan ziren. Hala ere, kable hori ez da Kaiko pasealekuko 1., 2. eta 3. zenbakietara iritsi, eta horrek komunikazio-arazoak eragin ditu atari horietako biztanleen eta merkatarien artean.

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez zituen Kaiko pasealekuko 1., 2. eta 3. atariak txertatu Parte Zaharreko zuntz optikoaren instalazioan?
2. Gobernu Taldeak ba al du asmorik sare hori zabaltzeko jarduketan atari horiek txertatzeko?
3. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2026ko apirilaren 10a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Nekane Arzallus andreak eta Pascua Martin jaunak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la red de fibra óptica en la Parte Vieja.**

El Sr. Pascua Martín da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre la red de fibra óptica en la Parte Vieja.

JUSTIFICACIÓN

La red de fibra óptica se instaló a finales de 2023 en la Parte Vieja, en una actuación que tuvo una duración de seis meses. El despliegue de este cableado no ha llegado, sin embargo, a los números 1, 2, 3 del Paseo del Muelle casi tres años después, con los consiguientes problemas de comunicación que provoca su ausencia entre los residentes y comerciantes de dichos portales.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no incluyó a los portales 1, 2 y 3 del Paseo del Muelle en la instalación de la fibra óptica de la Parte Vieja?
2. ¿Tiene intención el Equipo de Gobierno de incluirles en el despliegue del cableado?
3. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

En San Sebastián, a 10 de abril de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen la Sra. Arzallus Iturriza y el Sr. Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**6.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua,**

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo PP,**

**segurtasunaren arloko hiri-itunari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Segurtasunaren aldeko Hiri-Itunari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Jon Insausti alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak).

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urrian, Hiriaren Egoerari buruzko Udalbatzan, Alderdi Sozialistak arau-proposamen bat aurkeztu zuen, Segurtasunaren aldeko Hiri-Itun bat sortzeko lanean hasteko. Proposamen hori Alderdi Popularrak aurkeztua zuen lehenago, eta aurkako botoa eman zioten. Horregatik pentsatu genuen proposamen hori eguzkitan topa egitea besterik ez zela, baina, jakina, beti defendatu dugunarekin bat, aldeko botoa eman genion.

Sei hilabete geroago, ez dakigu ezer hiri-itun horri buruz. Are gehiago, ez da sortu ezta lantalde bat ere zirriborro bat lantzen hasteko. Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

Horregatik guztiagatik, hau da behean sinatzen duenak egiten duen

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da hasi PSOE segurtasunaren aldeko hiri-itun hori idazten?
2. Noiz hasi nahi ditu PSOEk ituna idazteko lanak?
3. Noiz uste du PSOEk amaituta egongo dela Segurtasunaren aldeko Hiri-Itunaren proiektua, gainerako taldeek Udalbatzan berretsi ahal izateko?

Donostia, 2026ko maiatzaren 8a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Juan Marrero, Martin Ibabe eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**7.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Miramar**

**sobre pacto de ciudad en materia de seguridad.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti, en la Comisión Espacio Público, Obras y Servicios, sobre pacto de ciudad seguridad.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de octubre, durante el Pleno del Estado de la Ciudad, el Partido Socialista presentó una Proposición Normativa para trabajar en la creación de un Pacto por la Seguridad en la ciudad, propuesta que previamente había presentado el Partido Popular y a la que habían votado en contra. Esto nos hizo temer que esa propuesta no era más que un brindis al sol, pero por supuesto, en coherencia con lo que siempre hemos defendido, votamos a favor.

Seis meses mas tarde, nada se sabe sobre ese pacto de ciudad, ni siquiera se ha convocado un grupo de trabajo para empezar a trabajar en un borrador.

Por todo ello, el abajo firmante formula la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el PSOE no ha iniciado el trabajo para redactar ese futuro Pacto de Ciudad por la seguridad?
2. ¿Cuándo pretende el PSOE empezar esos trabajos?
3. ¿Cuándo cree el PSOE que estará finalizado el proyecto de Pacto de Ciudad por la seguridad y podrá ser ratificado en el Pleno por el resto de grupos?

En San Sebastián, a 8 de Mayo de 2026

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen los Sres. Marrero Vizcaíno, Ibabe Eceiza y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo PP,**

**Jauregiko barandaren egoera txarrari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomás Pascua Martínek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon Insausti Maisterrena alkateari, Miramar jauregiko barandaren egoera txarrari buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Miramar Jauregiko lorategiko baranda, Loretopekoarekin bat egiten duen tokian, oso egoera txarrean dago, eta korrosio- eta oxido-zantzu nabarmenak ditu. Lorategiko beste zati batzuetan ere, hala nola jauregiaren ekialdeko hegalean tunelera ematen duen barandan, oxidoa duten eta mantentze-lanik ez duten baranda-zatiak daude.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez ditu barandako tarte horiek behar bezala mantentzeko lanak egin?

2. Udal-gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?

3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2026ko maiatzaren 4a.

Tomás Pascua Martín,
Udal Talde Popularreko zinegotzia"

Iñigo Garcia eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**sobre el mal estado de la barandilla del Palacio de Miramar.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre mal estado de la barandilla del Palacio de Miramar.

JUSTIFICACIÓN

La barandilla de los jardines del Palacio de Miramar, en su encuentro con el Pico del Loro, se encuentra en muy mal estado, presentando signos muy evidentes de corrosión y oxido. En otros tramos de los jardines, como la barandilla que se asoma hacia el tunel por el flanco este del Palacio, encontramos también tramos de barandilla que presentan oxido y falta de mantenimiento.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no ha abordado el mantenimiento adecuado de esos tramos de barandilla?

2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de hacerlo?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo? En caso negativo ¿por qué motivo?

En San Sebastián, a 4 de mayo de 2026

Tomás Pascua Martín
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Intervienen los Sres. García Villanueva y Pascua Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**8.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Larratxo Ikastetxe zaharreko zuhaitzak inausi eta mantendu ez izanari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Tomás Pascua Martínek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Jon

**8.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de poda y mantenimiento de los árboles situados en el antiguo Colegio Larratxo.**

El Sr. Pascua Martín expone la siguiente interpelación:

"Tomás Pascua Martín, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

Insausti Maisterrena alkateari, Larratxoko eskola ohian kokatutako zuhaitzak ez inausi eta mantentzeari buruzkoa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Larratxoko eskola ohia Donostiako (Altza) Txirrita Bertsolariaren pasealekuko 2. zenbakian dago kokatuta, eta 1995ean utzi zion eskola gisa funtzionatzeari. Gaur egun, bertako instalazioak, patioa, gimnasioa eta aldagelak barne, jarduera komunitarioetarako eta auzo-ekitaldietarako erabiltzen dira, eta Iralerekin adostuta kudeatzen dira.

Instalazioen artean, kanpoko kirol-pistak daude, zuhaitzez inguratuta, eta zuhaitz horiek inausi eta mantendu gabe egoteak eragina du bertan egiten diren kirol-jardueretan.

Ildo horretan, zuhaitz baten adarrak adarrak saskiraino iristen dira, eta eraikinaren barrualdera sartzeko atea ere ezin da erabili zuhaitz horren adarren ondorioz. Bertan, komun bat dago, jokalariek futbol-txapelketetan erabiltzeko.

Gainera, beste zuhaitz baten adarrek pistak argiztatzen dituzten fokuak estaltzen dituzte, eta ondorioz, argia ez da behar bezala iristen kirol-pistetara.

Azkenik, tamaina handiko zuhaitz bat dago, eta haren hostotza trinkoa pisten barruan sartzen da.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez ditu orain arte zuhaitz horiek inausi eta behar bezala mantendu?

2. Udal zerbitzu teknikoek egin al dute zuhaitz horien egoerari buruzko ebaluaziorik, bereziki instalazioen kirol-erabileretan izan dezaketen eraginari eta kirol-pisten erabiltzaileentzat izan ditzaketen arriskuei buruz?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zein dira ebaluazio horren emaitzak?

4. Udal Gobernuak aurreikusita al dauka zuhaitz horiek inausteko edo saneatzeko jarduerarik egitea, kontuan hartuta kirol-pisten erabiltzaileentzat dagoeneko arazo bat direla?

siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Jon Insausti Maisterrena, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de poda y mantenimiento de los árboles situados en el antiguo Colegio Larratxo.

JUSTIFICACIÓN

El antiguo Colegio Larratxo, ubicado en el Paseo Bersolari Txirrita 2 en San Sebastián (Altza), dejó de funcionar como centro docente en 1995. Actualmente, sus instalaciones, incluyendo el patio, el gimnasio y vestuarios, son utilizadas para actividades comunitarias y eventos vecinales, gestionados en acuerdo con Irale.

Entre sus instalaciones, se encuentras las pistas deportivas exteriores, que se encuentran rodeadas de árboles cuya falta de poda y mantenimiento afecta ya a las actividades deportivas que tienen lugar en las mismas.

En este sentido, encontramos un árbol cuyas ramas alcanzan ya la canasta, e impiden utilizar la puerta que accede al interior del edificio, donde existe un aseo que está pensado para ser utilizado en torneos de fútbol por los jugadores.

Además, las ramas de otro de los árboles tapan los focos que iluminan las pistas, impidiendo que llegue la luz como debería.

Finalmente, se observa un árbol de gran porte cuyo denso follaje se entra dentro de las pistas.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Gobierno Municipal no ha procedido hasta la fecha a la poda y mantenimiento de los árboles mencionados?

2. ¿Se ha realizado por parte de los servicios técnicos municipales alguna evaluación del estado de dichos árboles, especialmente en lo relativo a su afección a los usos deportivos de las instalaciones, y posibles riesgos para los usuarios de las pistas deportivas?

3. En caso afirmativo, ¿cuáles han sido las conclusiones de dicha evaluación?

4. ¿Tiene previsto el Gobierno municipal llevar a cabo actuaciones de poda o saneamiento de los mencionados árboles, que suponen ya un problema para los usuarios de las pistas deportivas?

Donostia, 2026ko maiatzaren 4a

Tomás Pascua Martín,
Udal Talde Popularreko zinegotzia”

Iñigo Garcia eta Tomas Pascua jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak 9. eta 10. gaiak jarraian batera jorratzea erabaki du.

* * * *

**9.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Peñaflorida kaleko asfaltoaren egoera txarrari buruzkoa.**

Tomas Pascua jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Talde Popularreko zinegotzi Tomas Pascua Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Peñaflorida kaleko errepidearen egoera txarrari buruzko INTERPELAZIO hau egin nahi dio Jon Insausti Maisterrena alkateari Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak).

JUSTIFIKAZIOA

Peñaflorida kaleko 6. zenbakiaren parean behera sartuta dago zorua galtzadaren ezkerraldean, eta arriskuan jartzen du erabiltzaileen segurtasuna –batez ere motorrez, patinetez edo bizikletaz doazenena–, eta ibilgailuak hondatzeko modua ere jartzen du.

Hori dela eta, hauxe da gure

